

DEUSEZTA DITZAGUN AURREIRITZI ISIL ETA SOTILAK

Gay, lesbiana eta transexualenganako aurreiritziak deuseztatzen ahalegindu ondoren, 2010eko urte honetan esan dezakegu gure gizartea LGTBek askatasunaz eta ikusgaitasunaz gozatzeko aukera duten herrialdeen multzoan dela, munduko beste leku batzuetan ez bezala¹. Arrakasta, ordea, ez zaio soilik gizarte taldeek eta norbanakoek egindako ahalegin handiari zor, baizik eta gizarte osoari, gizarte osoak egin baitu aurrera, pixkanaka, aukera nahiz orientazio homosexual zein lesbikoa zuten edo transexualak ziren pertsoneri ezarri izan zaien—diskriminazio onartezina amaitzearen aldeko bidean, eta horrenbestez, **lerro lodiko bereizkeriak**, gure lege testuetan islatu izan direnak, alegia, suntsitu ditugula esateko moduan gara.

Berdintasun formala lortu badugu ere, bai eta egitate gay, lesbiko, transgeneroko eta transexualari buruzko ideien eremuan gizarte aurrerapen garrantzitsuak erdietsi ere, gaur egun, **ALDARTE** kezkatzen duena da **GIZARTEAK LGTB KOLEKTIBOA ONARTZEN DUEN ARREN, BALDINTZAK ETA “BAINAK” JARRIZ EGIETN DUELA**. Aniztasunarekiko tolerantzia apala baino ez dela lortu dakusagu, izan ere, ez baita berdintasuna bete-betean onartzen, eta tratua desberdina antzeman daiteke hainbat instituzioetako alorretan, bai eta, halaber, eguneroko elkarbizitzan ere.

Azken aldian, nahi baino sarriago entzun ohi ditugu honelakoak: **NIK AINTZAT HARTZEN DUT GAY ETA LESBIANEK EGIN ETA ESATEN DUZUENA... BAINA... EZ dut gustuko horren agerian jardutea...EZ dut atsegin zuen senar nahiz emazteak maiz aitatzea... EZ deritzot zuzena kalean elkarri musuak emateari... EZ nator bat adoptatzeko eskubidearekin... EZ dut ulertzen zergatik zaudeten etengabe komunikabideetan.**

2010eko E-28 honetan ERRESPETU hitzak zer esan nahi duen hausnartzeko deia egingo diogu gizarteari.

ALDARTEren ustez, elkarri errespetua erakustea sexu aniztasuna eta genero identitatea bizitzaren gune eta alor guztietan adierazi ahal izatea da, bai eta herritar guztiak ondorio guztietarako berdinak izatea ere, gure sexu orientazioa edo genero identitatea gorabehera.

Hori horrela, errespetuaren alderantzizkoa da baldintzak eta “ bainak ” jartzea, ala aldamenekoa den bezalakoa agertu izanagatik, minduta sentitzea. Lesbianak, gayak, transgeneroak eta transexualak aitzakotzat hartzearen alderantzizkoa da inork jendaurrean ikus ez ditzan ezkutaraztea eta intimitate ilunenera zokoratzea, heterosexualei sekula exijituko ez litzaiekeen apaltasunera behartuz. Errespetatzearen aurkakoa da eskubideak urri diezazkietela eskatzen jarraitzea.

¹ LGTB kolektiboaren egoera munduko zein bazterretara begiratzen dugun, oso desberdina da; leku batzuetan lesbiana, gay, transgenero eta transexualak hiltzen, heriotzara kondenatzen, bortxatzen eta kartzelarazten dituzten bitartean, beste batzuetan –mendebaldeko herrialdeetan, batik bat – gainerako gizartekideen pareko eskubideak dituzte bai eta lege eskubide berberak ere.

Gaur egun, salbuespenak salbu, diskriminazioa ez da lehengo bortizkeriaz adierazten; marjinazioetako asko ez dira agerikoak, onarpen itxura duten bereizkeriak dira, eta ez dute kalean emandako jipoiaren basakeria eta agerikotasuna edo ikasgeletako buylling homofobiko eta transfobikoaren krudelkeria.

Gaur egun, diskriminazioak, oro har, sotilak dira neurri batean: ukitu heterosexual nabariko kanpaina edo iragarkietatik hasi eta hedabideetan homosexualitateari buruz egin ohi diren iruzkin narrats eta usuak, edota ama lesbiana edo transexualek etengabe aurki ditzaketen oztopoak beren eskubideak arautzen dituzten legeak behin eta berriro ezartzen ez direlako epaitegi eta erregistro zibiletan.

Aurreiritzi ikusezin horiek guztiek are eta zailagoa bihurtzen dute ALDARTERen gisako erakundeen lana. Oraindik ere, era guztietako diskriminazioen aurka borrokatzen jarraitu behar dugu, eta bereziki azalatu eta agerian jarri, itxura isil eta sotilez mozorrotzen den diskriminazioa. Azken buruko helburua LGTB kolektiboarenganako aurreiritziak ezabatzea da eta, bide horretan, gero eta anitzagoa, irekiagoa eta integratzaileagoa den gizarte batean bizi ahal izateko oztopoak zein diren deskubritu beharko ditugu, inork baldintzarik jar ez diezaion gay, lesbiana eta transexual izateari.

Horrexegatik lehentasuna izango duten jarduketak leerroak ez ezik, gizarte eragileen inplikazioa ere eskatzen dugu, ez baita, bestela, gizarte eremu guztietan, benetako berdintasunik eta kolektiboaren onarpenik izango. Horrela bada, ezinbestekoa da:

- 1) **Eskola Curriculumean** sexu aniztasuna eta genero identitatea kontuan hartuko dituen heziketa sartzea.
- 2) **Gizarte alor guztietara pedagogia soziala** eta sentsibilizazio kanpainak zabaltzea.
- 3) Instituzioen egitura guztietan **“sexu aniztasunaren eta genero identitatearen ikuspegia”** txertatzea.
- 4) **LGTB kolektiboari eta haien hurbilekoei arreta zuzena bermatzea**, haien ongizatea, norberaren onarpena eta behar bezalako gizarteratzea lortzeko.
- 5) **LGTBei buruzko politika publikoak** nondik nora jo behar duten jakiteko azterketa gehiago prestatzea.

ALDARTEk dei egiten du “TOLERANTZIATIK ERRESPETURAKO URRATSA EMAN DEZAGUN”. Mezu hori abiapuntu hartuta, geroz eta sexualitate anitzago eta integratzaileago baterantz doan bidea egin behar dugu. Horratx, aurrean dugu erronka.

Ekainak 28-ko manifestazioa, 19:30 h., Moyua emparantz

ALDARTE, Gay, lesbiana eta transexualen arretarako Zentroa